

BILBON IZAR BERRIA PIZTU DUTE

Izarkom telekomunikazio kooperatibako nodo berria martxan dago gaurtik aurrera

Izarkom, duela 6 urte sortutako herrigintza proiektu bat da, telekomunikazio burujabetza helburu duena hain zuzen ere. Hau da, herri batek edo gizarte batek, bere telekomunikazio zerbitzuak nola jaso nahi dituen erabaki eta lantzeko erakundea hain zuzen ere. 3.200 bazkidek osatzen duten irabazi asmorik gabeko kooperatiba integrala da, norbanakoak gehienak, baita 300 bat elkarte, enpresa eta udal ere.

Beste operadore batzuk eskaini ditzaketen zerbitzuak eskaintzen ditu Izarkomek. Internet konexioa modu ezberdinetan: zuntz bidez, irrati lotura bidez, edo 4G bidez. Telefono mugikor lineak eta telefono finko zerbitzua baita ere. Zerbitzuok gainera, kalitatezkoak eta eskuragarriak diren baldintzetan eskaintzen ditu.

Bestalde, erakunde edo enpresentzako telekomunikazioen inguruko aholkularitza ere eskaintzen du. Horrez gain, transnazionalen interesetik at dauden landa eremuetara ere sare komunitarioak hedatzen ditu beste eragile batzuekin elkarlanean. Guztia hau, euskaraz eta gertutasunetik lantzea da Izarkomen bereizgarrietako bat, izan ere, arreta ororen atzean pertsonak daude eta ez hain ohituak gaituzten makinak.

Gaurtik aurrera, Irungo egoitzaz gain, Bilboko Goienkale kaleko 14. zenbakitik arituko da kooperatiba duela sei urteko proiektuari segida ematen. Amaia Oca, lehendakariak esan duenez “Bazkideen neurriara egokitutako zerbitzua ematen dugu, beraien beharretan oinarrituta. Izarkomek ez du eskaintza deigarrien bidez ahalik eta gehien saltzea bilatzen, kontsumo arduratsua eta jasangarria bultzatzea da gure helburuetako bat.”

Gaurko inaugurazioarekin aspalditik buruan zuten ametsetako bat egi bihurtzen dutela aitortu dute kideek. Orain arte bulego zentrala Irunen egonik, Izarkom ezagunagoa izan da Gipuzkoan. Izan ere, Bizkaiko bazkideetza ez da %24ra ere iristen eta aldi berean soziologikoki lehentasunezko herrialdea da.

Bilboko nodoa, jendaurreko arreta eta bulegoaz haratago, telekomunikazio burujabetza eta ekonomia sozial eraldatzailearen gune dinamizatzaile bezala aurkeztu du Urtzi Ugalde proiektuko koordinatzaileak: “Ideia da Bilbo-Bizkaian Izarkom proiektua herritarrentzat irekitzea eta elkarlanerako espazio bat sortzea, jarduera anitzak antolatuz, topagune bilakatuz eta bai Izarkometik, edo kooperatiba osatzen duten bazkideengandik sortu daitezken ekimen eta proiektuak abiatuz ere”.

Honengatik guztiagatik, etapa berri honi ekiteko irekiera jaia antolatu dute. 20:00etan hasiko da eta trikitixa eta txalapartaz gain, Izarkomen orbitan dauden luxuzko gonbidatuak izango dira bertan: Ainara Maya idazlea, Unai Iturriaga bertsolaria, La Basu rap abeslaria, Unai Gaztelumendi marrazkilaria eta Ion Gurrutxaga musikaria.

ENCIENDEN UNA NUEVA ESTRELLA EN BILBO

El nuevo nodo de la cooperativa de telecomunicaciones Izarkom está en marcha desde hoy

Izarkom es un proyecto popular creado hace 6 años cuyo objetivo es la soberanía de las telecomunicaciones. Es decir, un organismo para decidir y trabajar cómo un pueblo o una sociedad quiere recibir sus servicios de telecomunicaciones. Se trata de una cooperativa integral sin ánimo de lucro formada por 3.200 socixs, la mayoría particulares, así como unas 300 asociaciones, empresas y ayuntamientos.

Izarkom ofrece servicios que ofertan otros operadores, como la conexión a Internet de diferentes formas: por fibra, por radio, o por 4G. También, disponen de líneas móviles y de teléfono fijo. En el desayuno de prensa celebrado por la mañana se ha destacado la calidad y accesibilidad de todos estos servicios.

Por otro lado, también ofrecen asesoramiento en telecomunicaciones para entidades o empresas y despliegan redes comunitarias a zonas rurales ajenas al interés de las transnacionales, siempre en colaboración con otros agentes. Una de las señas de identidad de Izarkom es trabajar todo esto en euskera y desde la cercanía, ya que detrás de toda atención están las personas y no máquinas, tal y como nos tienen acostumbradxs.

Amaia Oca, la presidenta, ha dicho que "prestamos un servicio adaptado a la medida de lxs socixs, basado en sus necesidades. Izarkom no busca vender lo máximo posible a través de ofertas llamativas, uno de nuestros objetivos es impulsar un consumo responsable y sostenible. "

Nos reconocen que con la inauguración de hoy se hace realidad uno de los sueños que tenían hace tiempo. Hasta ahora la oficina central ha estado en Irun, por lo que Izarkom es más conocida en Gipuzkoa. De hecho, la afiliación vizcaína no llega ni al 24% y es a la vez un territorio sociológicamente prioritario.

El coordinador del proyecto, Urtzi Ugalde, ha presentado el nodo de Bilbao como un espacio dinamizador de la soberanía de telecomunicaciones y la economía social transformadora, más allá de su servicio de atención al público y oficina: "La idea es que se convierta en un espacio que ayude y organice la difusión del proyecto de Izarkom en Bilbao-Bizkaia, organizando múltiples actividades, tanto propias como de lxs socixs que forman parte de la cooperativa".

La fiesta de apertura comenzará a las 20:00 horas, y en ella, además de trikitixa y txalaparta, estarán invitadxs de lujo que están en la órbita de Izarkom: la escritora Ainara Maya, el bertsolari Unai Iturriaga, la rapera La Basu, el dibujante Unai Gaztelumendi y el músico Ion Gurrutxaga.